

EH Bildu talde politikoa

Grupo político EH Bildu

Ijentea, 1 - 20003 Donostia
Tel. 943481027 eh_bildu@donostia.eus-- www.donostia.ehbildu.eus -

**ARAUA MOLDATZEKO PROPOSAMENA, EH BILDU UDAL TALDEAK AURKEZTUA,
ESTABLEZIMENDU ETA LOKALETAN JARDUERAK IREKITZEKO ETA HAIK
KONTROLATZEKO ZERBITZUAK EMATEKO TASAK ARAUTZEN DITUEN ZERGA
ORDENANTZARI.**

EH Bildu udal taldeak aztertzeke aurkezten du ondoko arau proposamena, helburu izanik auzoetako merkataritza biziberritzea eta Covid 19ak utzitako kalteak arintzea, eta kontuan izanik, 2021ean, tokiko entitateek aparteko hobariak onartu ahal izango dituztela Gipuzkoako Toki Entitateei buruzko uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauak II. tituluaren III. kapituluaren 3. sekzioan jasotakoari jarraituz ezarrita dauden udal tasen zenbatekoaren gainean. Hobari horiek jasotzeko arrazoiak Covid 19aren osasun krisiarekin lotuta egon behar dira, eta krisi horrek bereziki eragindako kolektiboek aplikatu ahal izango zaie. Hobarien ondorioek 2020ko urtarrilaren 1era arteko atzera eragina izan dezakete:

Aldatzea establezimendu eta lokaletan jarduerak irekitzeko eta haiek kontrolatzeko zerbitzuak emateko tasak arautzen dituen zerga ordenantzaren 7. art.- Hobariak atala, honela MOLDATUTA:

6.- 2021ean, tasaren kuotan % 50eko hobaria izango dute auzoetako merkatarik elkarrekin edota propio horretarako elkartutako auzoetako merkataritza establezimenduek eta lehen sektoreko profesionalek, outlet eta tankerako azokak antolatzeagatik.

Donostia, 2021eko abuztuaren 3an

Reyes Carrere Zabala
EH Bildu udal taldeko bozeramailea